


## Euskal AEko BPGa % 2,3 hazi da 2025eko hirugarren hiruhilekoan eta 13.000 lanpostu baino gehiago sortu dira

**Urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, BPGa % 0,6 igo da, eta enplegua % 0,2**

Euskal AEko barne-produktu gordinak (BPGak) % 0,6 egin du gora hiruhileko arteko terminoetan 2025eko hirugarren hiruhilekoan, urte arteko % 2,3ko hazkundearen ondoren, Eustatek landutako datuen arabera. Enpleguak, arduraldi osoko lanpostu baliokideen arabera neurtuta, % 0,2 egin du gora urteko hirugarren hiruhilekoan, urteko bigarren hiruhilekoaren aldean. Horrek esan nahi du, urte arteko terminoetan, % 1,4ko hazkundera izan dela, hau da, guztira, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoan baino 13.450 lanpostu garbi gehiago sortu direla.



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Urteko hirugarren hiruhilekoko estimazio horiek egiteko unean eskura zegoen informazio koiuntural ekonomiko guztia jasotzen dute, eta Eustaten urriaren 16ko *Hiru hilean behingo kontuen aurrerapenean* lortutako BPGaren eta enpleguaren estimazioak hobetzen dituzte, bi hamarren hiruhileko arteko hazkunderari dagokionez eta hamarren bat urte arteko hazkunderari dagokionez. Enpleguari buruzko estimazioak, aldiz, ez dira aldatu.

2025eko hirugarren hiruhilekoan, euroguneko ekonomiarako (% 1,4) eta Europar Batasun osorako (% 1,6) egindako azken estimazioaren gaineratik dago Euskal AEko BPGaren urte arteko hazkunde estimatua (% 2,3). Urriaren 29ko *Espainiako hiru hilean behingo kontabilitate nazionalaren aurrerapenean*, bestalde, Estatu osorako urte arteko % 2,8ko hazkundera estimatu zen.

**Eskaintzaren ikuspegitik**, balio erantsiaren bilakaera positiboa izan da, bai urte arteko terminoei dagokienez (2025eko hirugarren hiruhilekoa, 2024ko hirugarren hiruhilekoarekiko), bai hiruhileko arteko terminoei dagokienez (2025eko hirugarren hiruhilekoa, 2025eko bigarren hiruhilekoarekiko), sektore ekonomiko guztietan, lehen sektorean izan ezik.

## BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/III

	2023	2024	2024		2025		
			III	IV	I	II	III
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	12,2	4,3	3,4	3,4	0,6	-0,4	-1,5
Industria eta energia	2,2	2,0	1,8	0,7	0,4	0,1	0,2
Manufaktura-industria	1,8	1,7	1,3	0,3	0,2	0,0	0,3
Eraikuntza	4,2	2,0	1,4	1,3	1,7	3,1	5,0
Zerbitzuak	3,3	2,9	2,7	2,5	2,7	2,8	2,9
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,8	2,0	1,2	1,7	2,9	3,3	3,5
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	1,2	2,9	2,9	2,2	2,0	2,1	2,1
-Gainerako zerbitzuak	4,2	3,5	3,6	3,2	2,8	2,7	2,9
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	3,2	2,6	2,4	2,0	2,1	2,1	2,4
-Produktuen gaineko zerga garbiak	1,7	1,6	1,4	1,9	2,3	2,4	2,2
<b>BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan</b>	<b>3,0</b>	<b>2,5</b>	<b>2,3</b>	<b>2,0</b>	<b>2,1</b>	<b>2,2</b>	<b>2,3</b>

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Abenduaren 3a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Izan ere, **lehen sektoreak** balio erantsiaren % 1,5eko jaitsiera izan du termino errealetan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta % 0,9koa aurreko hiruhilekoaren aldean.

**Industriaren** sektorean, balio erantsia, urte arteko terminoetan, % 0,2 igo da, eta manufaktura-industriaren kasuan % 0,3ko gorakada izan da. 2025eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, bai industria osoa, bai manufaktura-industria % 0,4 hedatu dira.

**Eraikuntzaren** sektoreak balio erantsiaren urte arteko % 5,0ko igoera izan du 2025eko hirugarren hiruhilekoan, termino errealetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 2,3ko gora egin ondoren.

**Zerbitzuen** sektorearen jarduera globala % 2,9 igo da 2024ko hiruhileko berarekin alderatuta; hau da, balio erantsia % 0,6 igo da urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Zerbitzuen portaera positiboa izan da azken hiruhilekoan, bereizitako hiru adarretan. **Merkataritza, ostalaritza eta garraioa** adarraren balio erantsia % 3,5 igo da aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean, aurreko hiruhilekoarekiko % 0,7 gora egin ondoren. Urte arteko hazkundera esanguratsua izan da, halaber, **Gainerako zerbitzuak** adarrean —higiezin-jarduerak, profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, baita finantza- eta aseguru-jarduerak ere biltzen ditu—, urte arteko % 2,9ko hazkunde-tasarekin. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundera % 0,7koa izan da. Azkenik, **Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak** adarrean, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 0,3 aurrera egin ondoren, balio erantsiaren hazkundera % 2,1koa izan da 2024ko hirugarren hiruhilekoarekiko.

## BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/III

	2024		2025		
	III	IV	I	II	III
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	0,2	0,4	-1,1	0,2	-0,9
Industria eta energia	0,3	-0,0	0,0	-0,3	0,4
Manufaktura-industria	0,1	0,1	0,1	-0,3	0,4
Eraikuntza	0,4	0,5	0,8	1,3	2,3
Zerbitzuak	0,4	0,6	1,0	0,7	0,6
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,5	0,8	1,4	0,6	0,7
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	0,3	0,2	0,9	0,7	0,3
-Gainerako zerbitzuak	0,5	0,6	0,8	0,8	0,7
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	0,4	0,4	0,8	0,5	0,6
-Produktuen gaineko zerga garbiak	0,6	0,7	0,6	0,5	0,3
<b>BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan</b>	<b>0,4</b>	<b>0,4</b>	<b>0,7</b>	<b>0,5</b>	<b>0,6</b>

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Abenduaren 3a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Agregatu sektorialen urte arteko joerak % 2,4ko urte arteko hazkundera eragin du Euskal AEko **balio erantsian** 2025eko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan ikusitakoaren % 0,6 gainerik.

**Eskariaren** aldetik ere, hazkunde orokortuak izan dira. Etxeetako azken kontsumoko gastuak eta EZIAGE – etxeen zerbitzurako irabazi asmorik gabeko erakundeek (**kontsumo pribatua**) % 2,8ko urte arteko hazkundera izan dute, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,4 igo ondoren.

Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua (**kontsumo publikoa**) % 2,2 igo da 2024ko hiruhileko berarekin alderatuta, eta aurreko hiruhilekorako estimatutakoaren % 2,7 gainerik kokatu da.

## BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/III

	2023	2024	2024		2025		
			III	IV	I	II	III
Gastua azken kontsumoan	1,9	2,8	2,3	2,4	2,4	2,3	2,7
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	2,0	2,5	1,9	2,2	2,6	2,9	2,8
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	1,9	3,5	3,9	3,1	1,9	0,2	2,2
Kapitalaren osaketa gordina	2,4	2,7	2,5	2,2	2,3	3,5	4,9
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	1,3	2,4	3,1	3,6	3,0	4,0	4,8
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	3,2	2,9	2,1	1,3	1,8	3,2	4,9
Barne-eskaria	2,1	2,8	2,4	2,4	2,4	2,6	3,2
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	-1,1	0,1	2,6	0,6	2,0	0,8	-1,8
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	-2,2	0,4	2,6	1,1	2,4	1,4	-0,6
<b>BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan</b>	<b>3,0</b>	<b>2,5</b>	<b>2,3</b>	<b>2,0</b>	<b>2,1</b>	<b>2,2</b>	<b>2,3</b>

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Abenduaren 3a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Kontsumo publikoaren eta pribatuaren baterako bilakaerak **azken kontsumoko gastuaren** urte arteko % 2,7ko hazkundera ekarri du, eta urteko bigarren hiruhilekoaren aldean % 0,9ko hazkundera.

**Kapital-eraketa gordinen** (inbertsioa), urte arteko hedapena % 4,9koa izan da, aurreko hiruhilekoarekiko % 1,8ko hazkundera izan ondoren. **Ekipo-ondasunetan** egindako inbertsioa % 4,8 igo da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, hau da, % 1,7 egin du gora hiruhileko arteko terminoetan.

Eraikuntzaren bilakaerari lotuago dagoen **kapital-eraketa gordinaren gainerakoan**, urte arteko hazkundera % 4,9an kokatu da, aurreko hiruhilekoarekiko % 1,8ko igoera zenbatetsi ondoren.

**Barne-eskariak** (azken kontsumoko gastuak eta kapital-eraketa gordinak osatzen dute) % 3,2ko urte arteko hazkundera izan du urteko hirugarren hiruhilekoan. Hazkunde hori BPGrako estimatutakoaren gaintik dagoenez (% 2,3), **kanpo-sektorearen** ekarpena negatiboa izan da urteko hirugarren hiruhilekoan. Izan ere, ondasun eta zerbitzuen **esportazioak** % 1,8 jaitsi dira urte arteko terminoetan, inportazioak baino gehiago, **inportazioak** % 0,6 txikiagoak izan baitira aurreko urteko hirugarren hiruhilekoan ikusitakoak baino. **Kanpoko saldoak**, beraz, eragin negatiboa izan du Euskal AEko ekonomia osoaren urte arteko bilakaeran 2025eko hirugarren hiruhilekoan.

## BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/III

	2024		2025		
	III	IV	I	II	III
Gastua azken kontsumoan	0,6	0,7	0,6	0,5	0,9
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	0,6	0,9	0,6	0,9	0,4
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	0,6	0,0	0,3	-0,8	2,7
Kapitalaren osaketa gordina	0,4	0,3	0,7	2,1	1,8
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	0,9	0,4	0,4	2,3	1,7
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	0,1	0,2	0,9	1,9	1,8
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	0,3	-2,8	0,7	2,6	-2,3
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	0,5	-2,6	0,5	3,1	-1,5
<b>BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan</b>	<b>0,4</b>	<b>0,4</b>	<b>0,7</b>	<b>0,5</b>	<b>0,6</b>

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Abenduaren 3a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Enplegu-mailei dagokienez (**arduraldi osoko lanpostu baliokideetan** neurtuta), enplegu osoa % 1,4 igo da 2024ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, aurreko hiruhilekoarekiko % 0,2 gora egin ondoren.

Lehen sektorean enplegua 2024ko hirugarren hiruhilekoaren maila berean mantendu da, baina hiruhileko arteko terminoetan % 0,4 jaitsi da. Industrian, lanpostuen urte arteko sorrera % 0,2koa izan da, hau da, aurreko hiruhilekoko ia enplegu-maila bera izan da. Eraikuntzan, enpleguaren bilakaera positiboa izan da, bai urte arteko terminoetan (% 2,0ko igoera), bai hiruhileko arteko terminoetan (% 0,5eko igoera). Azkenik, Zerbitzuen sektorean, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua % 1,7 igo da urte arteko terminoetan, hiruhileko arteko terminoetan % 0,3 aurrera egin ondoren.

**BPGak lurralde historikoen** arabera izandako bilakaerari dagokionez, 2025eko hirugarren hiruhilekoan Bizkaiak % 2,5eko urte arteko hazkundera izan du, Arabak % 2,3koa eta Gipuzkoak % 2,2koa. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Bizkaian % 0,7 hazi da, Araban 0,5 eta Gipuzkoan % 0,4.

---

**Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel: 945 01 75 62*